



Asperkizuna

1

Begiratu Emoziotegiko 66-67. orrialdeetako irudiari, eta azaldu zure ustez zer ari zaion gertatzen txerritxoari.



2

Erantzun Emoziotegiko 66-67. orrialdeetako irudiari buruzko galdera hauei.

● Uste duzu txerritxoa aspertuta dagoela? Zergatik?

● Zer egin lezake ez aspertzeko? Eman iezazkiozu lau ideia.

3

Irakurri Emoziotegiko 66. orrialdean **asperkizunari** buruzko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Asperkizuna nekeak eragiten du.
 - Asperkizuna asebetetzen ez gaituen zerbait egiten dugunean sortzen da.
 - Aspertzen garenean, denbora oso bizkor igarotzen da.
 - Aspertzen garenean, ondo pasatzeari uzten diogu.
- Orain, zuzendu esaldi okerrak.

4

Bilatu letra-zopan Emoziotegiko 66. orrialdeko testuan esanahi hauek dituzten hitzak, eta idatzi.

● Irudimenean gogoko den zerbait lortzeko gura, itxaropen bizia. _____

● Neke edo ahalegin handia eskatzen duena; nekez, nahigabez, oinazez betea. _____

● Gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

● Besteren bizkarretik bizi den organismoa.

● Pozoi jakin baten kontrako gaia.

S	N	J	H	W	Ñ	T	H	K	A
D	E	N	B	O	R	A	W	W	O
Ñ	K	V	G	Ñ	E	Y	A	A	T
O	E	I	S	A	R	O	P	U	O
I	T	Z	S	V	I	S	X	L	D
C	S	N	S	S	N	C	I	O	I
B	U	I	U	I	T	S	A	F	T
Ñ	A	L	E	V	O	R	A	R	N
B	I	Z	K	A	R	R	O	I	A

7 Irakurri zergatik aspertzen diren pertsona hauek, eta proposatu irtenbideak.

Ane

Batzuetan, jolas batek aspertu egiten nau arauak ondo ulertu ez ditudalako.

Ni jendea hizketan zeri buruz ari den ulertzen ez dudanean aspertzen naiz.

Saioa

Manex

Ni, batzuetan, zer egin ez dakidalako aspertzen naiz.

Batzuetan, egiten ari naizen horretan arreta galtzen dudalako aspertzen naiz.

Koldo

● Inoiz gertatu al zaizu halakorik? Zer?

● Azaldu zer gauzak aspertzen zaituzten zu.

8

Osatu.

... bezain aspertuta nago.

Hain aspertuta nago, ezen...

... baino aspertuago nago.

9

Aukeratu zerrendako sei elementu, eta azaldu zer egin zenezakeen haiekin ez aspertzeko.

lastoa

haría

serpentinak

konfetiak

errotuladoreak

ontziak

kartoia

papera

kola

guraizeak

dilistak

kotoia

